

BALORAZIO TEKNIKOAN KANPO GERATU DIREN PROPOSAMENAK

**Propuestas fuera del proceso
durante la valoración técnica**

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

1. KULTURA

✓ **PROPOSAMENA**

3. Proposamena

Helduak eta gaztetxoek elkartuko dituen antzezlanak Zikuñagan.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Udalak lehengo urtean bi auzoetan, eta aurten, auzo guztietara zabaldu du bi kultur jarduerak antolatzen proposamena: buruhandien tailerra, eta ipuin kontaketa saio bat. Haien balorazioa positiboa bada, horiek mantentzeko konpromisoa hartzen du.

Horretaz gain, auzo elkarteek kultur jarduerak antolatzen dirulaguntza bat dute, eta Udalak dirulaguntza horren bidez bultzatu nahi du kultur jarduerak antolatzea auzoetan.

Bukatzen, auzo elkarten lokalak errealitatea auzo auzo ezberdina da, baina kasu gehienetan antzerki ikuskizunak programatzeko espazioak ez daude egokituta, edo ez dira egokiak.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Helduak eta gaztetxoek elkartuko dituen antzezlanak Zikuñagan. PROZESUTIK KANPO

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

4. ZERBITZU PUBLIKOAK _____
5. _____

✓ **PROPOSAMENA**

10. Proposamena

Una persona para la limpieza del local y los baños de la AAVV Zikuñaga

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Auzo elkartearen antolaketa eta erabileraren arabera, beraiei dagokie garbiketa eta zaintza egitea ere. Udalak ez ditu auzo elkarteetako lokalen garbiketak egiten. Talde bakoitzak kudeatzen du eremu hori beraien beharren arabera.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

0€

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

1. INFORMATIKA
2. _____

✓ **PROPOSAMENA**

15. Proposamena

Wifi municipal en los barrios como tiene Donostia, Errenteria...

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Proposamenan ez da zehazten zein eremuan jaso nahi den zerbitzua. Aurrekontua egiterakoan hartu dugu erreferentzia bezala Ave Maria neurriko parke bat eta horrekin egin ditugu kontuak. Oso zaila da aurrekontu zehatza egitea aurretik jakin gabe zein eremuan jarri nahi den eta eremu horiek aurretik dituzten azpiegitura jakin gabe (sarea, argindarra, luraren orografia, ...)
Jakinda auzo bakoitzari jarri beharko geniola wifi publikoa, interbentzio handia egin beharko genuela aurreikusten da eta honek 125.000 eurotik gorako inbertsioa izango dela aurreikusi dugu.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Ave Maria antzeko lurralde eremuan zerbitzua emateko 40.000€ko aurrekontua aurreikusten da.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Zerbitzu Publikoak eta Informatika

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo, aurrekontua gainditzen duelako.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

10. Parte-hartzea
11. Turismoa

✓ **PROPOSAMENA**

16. proposamena:

“Txotx garaiak sortzen duen turismo eredua aldatzeko; masifikazioa, mozkorkeria, zarata..... eta horrek sortzen dituen gatazkak konpontzeko, parte hartzea prozesu bat abian jartzea.”

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Udalak txotx denboraldiaren inguruan hainbat lanketa egin ditu eta txostenak ere baditu. Esaterako:

- “Hernaniko turismo hausnarketa ” (2018)
- “Txotx denboraldiak duen eragin ekonomiko eta soziala ” (2018ko maiatzean).

Txosten hauek burutzeko Udalak parte hartze saio irekiak egin zituen (eragileekin, herritarrekin...). Beraz, une honetan Udalak baditu gaia hau lantzeko tresnak.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

3. IDAZKARITZA-BERRIKUNTZA_

4. _____

✓ **PROPOSAMENA**

17 Proposamena

Herritarrak modu erraz batean kalean ikusten diren hobetzekoak, kexak edo oharrak Udalera adierazteko APP bat sortzea

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Udalak helburua bezala jarria du ABISUAK, KEXAK ETA IRADOKIZUNAK, Herritarrek hauek udalera bidaltzeko dituzten modu guztiak (telefonoz, emailaz, presentzialki...) bere baitan jasoko dituen aplikazio bat sortu, garatu eta herritarrentzat erabilgarri jartzea, bertatik modu errazean, herritarrak udalaren jakinetan jartzeko izan ditzakeen, kexu zehatzak eta era berean, aplikazioak erantzunak jasoko lituzke

Eraberean, aplikazioaren garapena diseinatzean, helburu bezala markatu da aplikazio horren bitartez, modu errazean, ezagutu ahal izatea, egin den kexu zehatzaren egoera, zein sailek hartu duen beregain, zein egoeratan dagoen konponketan, edo jakinarazi beharreko bestelako edozein zirkunstantzia.

Azkenik ere, aplikazioa baliagarria izan beharko litzateke, kexen inguruko balantzeak ateratzeko, gardentasunaren ikuspegitik, zenbat kexa jaso, zenbat aurrera atera,...eta halako datuak jasoko lituzkeena

Egindako proposamenak bat egiten du udalaren egitasmoarekin, abisu kexa eta iradokizunen inguruan

Aplikazioaren sorrera eta garapena, kanpo enpresa baten bitartez kontratatu da, KAM TELEKOMUNIKAZIO AHOLKULARITZA enpresa bitartez eta ahal dela 2020n zehar martxan izan nahi da

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Kanpo kontratazioa martxan dagoelako

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

12. Hirigintza

✓ **PROPOSAMENA**

18.- Herritik mugitu gabe, aisialdi gune berriak izateko, Urumearen bazterretik birrindutako lurarekin egindako korridore berde bat eta aisialdi eta bainu guneak Fagollagako auzotik Ergobi auzora bitarte egitea proposatzen da. Posible den lekuetan korridorea errekaren bi aldeetara egitea eskatzen da. Udalak proiektua idaztea eta URAn defendatzea eskatzen da.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Proposatutakoak Udala Hirigintza Araudi Orokorra diren Hernaniko Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginak zehaztutako bi eremu hartzen ditu bere barne, LEH.05 "Akerregi meandrea" eta LEH.06 "Urumea" hain zuzen.

Bata zein bestearen arau berezian, bertan egingo diren erabilerak antolatzeko besteak beste, Plan Berezi bat edo gehiago idaztearen beharra ezartzen da. Hortaz Urumearen ertzetan eta ingurunean obra proiekturik idatzi aurretik, Plan Berezi bat edo gehiago idatzi beharko lirateke, arauetan jasotako antolamendu irizpideak eta helburuak jasota, besteen artean, erabilera baldintzak ezarriko dituztenak. Dokumentu horiek Udalez gairik hainbat erakunderen onospena jaso beharko dute behin betiko onartuak izan aurretik, tartean URA ur agentziarena.

Egun, epe motzean, Udalak aurreikusia du Urumea hiri eremua zeharkatzen duen zatia antolatuko duen Plan Bereziaren idazketa. Hirigintza eta Ingurumen zerbitzuetik komenigarria ikusten da hiri lurra eta landa lurra bereiztea, Urumearen ertzen antolamenduari dagokionez, batean zein bestean erronkak oso desberdinak direlako. Hiri lurrean, paisaiaren berreskurapena litzateke helburu nagusia, landa lurrean berriz, horren babesa.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Plan Berezia idazketa aurrekontuetan jasota dago.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Plan Bereziaren tramitazioa burutzeko 2-3 urte.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Hirigintza, Ingurumena, Zerbitzuak, Kontratazioa, Ondarea, Kultura, ...

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Plan Bereziaren idazketa dagoeneko aurreikusita dagoela, prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

13. Herri Lanak

14. Politika Sozialak: Haur, Nerabe eta Gazteria Arloa

✓ **PROPOSAMENA**

HAUR PARKE BAT HESITZEA. (23. zenbakia)

Txakurrengandik babesteko. Elkarbizitza ona egongo balitz ez litzateke beharko, baina ez da hala.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Herriko biztanleen eta etxeko animalien arteko harremana arautzen duen ordenantza badu Hernanik, hain zuzen, "Animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen udal ordenantza" 2015ko uztailaren 7an GAOn argitaratutakoa. Bertako VI. kapituluari, 24. artikuluan zehazten da: "*Hiriko bide eta leku publikoetan eta eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animalia-erabilerarako.*"

Hau da, txakur-jabeen ardura da haur-parkeetan txakurra uhal batez loturik izatea. Txakur-jabearen ardura da haurrak dauden eremu horretan bizikidetzat onerako hartu beharreko neurriak hartzea.

Teknikoki ez da beharrezkoa haur-parkeak hesitzea txakurrengandik babesteko.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Balorazio teknikoa KONTRAKOA da, eta prozesutik kanpo uztea proposatzen dugu.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

15. Hirigintza

✓ **PROPOSAMENA**

24. Proposamena

Goiz Eguzki txukundu eta apeaderoarekin lotu posible bada, eta bestela, proiektua idaztea.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Hernaniko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginean herriko berdeguneen sarea handitzea eta hobetzea aurreikusten da eta horretarako hainbat egitasmo finkatzen dira, orain aipatzen den hau tarteko. Alabaina, jarduketa hau kokatzen deneko eremuaren garapenari lotua dago eta ezinbestean harekin batera joan behar du.

Kasu zehatz honetan Atzietako parkea (HE)HS.03.1 jarduketa integratuarekin lotuta dago eta Arau Subsidiarioen Jarduketa Programaren arabera, bigarren laurtekoan (2020-2024)ekin beharreko jarduketa da.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

16. HIRIGINTZA _____

17. _____

✓ **PROPOSAMENA 25**

Garai batean Latsunbe Auzoan zegoen haur parkearen lekuan, haur parke estali bat egitea. Parkea estaltzeko lekua izateko eta bertan dauden Magnolioak eta Prunusak errespetatzeko, esplanada Latsunbe aldera zabaltzea proposatzen da. Parkea adin guztientzat izatea proposatzen da, hau da 0-3 urteentzako, 3-7 urteentzako eta 7-12. Gune desberdinak izan ditzake.

Euria egiten duen egunetan haurrekin kalean egoteko aukera zabaltzea.

Euria egiten duen egunetan, beharrezkoa ikusten delako horrelako egiturak izatea.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Proposamenak jasotzen du Latsunbe auzoan garai batean beste haur parke bat egon zen lekuan haur parke bat jartzea eta estaltzea. Ulertzen dut Latsunbeberri auzoko parkearen goiko aldean dagoen plataforma zoleztatu batez ari direla, hain zuzen ere Urbieta kaleko 13-15-17 eta 19 zenbakiko atarien parean.

Plataforma horrek 50 m luze eta 7 m zabal ditu, gutxi gorabehera, eta Urbieta kaletik hurbilen dagoen aldean zuhaitz ilara bat dauka.

Zuhaitz hauen adarrak hegan ibiltzen dira pistaren 3 edo 4 metroko zabalera inbadituz. Hortaz, edozein motako estaltze-lan egiteko, alde zuzetik bi aukera hauetakoren bat egin beharko litzateke: edo zuhaitzetan kimaketa handi bat egin, edo plataforma Latsunbeberri auzo aldera zabaldu.

Plataforma arbolei eragin gabe zabaldu ahal izateko bakarrik 60 m²-ko azalera egongo litzateke lur sendo baten gainean. Horrela, adinka banatutako haur jokoak jarri eta estaltzeko, proposamenak eskatzen duen moduan, espazio irregular eta eskas bat lortuko genuke.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

18. Hirigintza

✓ **PROPOSAMENA**

29. Proposamena

- Redactar un Proyecto de boulevartización de la carretera entre Mandazubi y Galarreta

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Hernaniko Udaltzaren, 2011ko apirilaren 11an behin betiko onartutako Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren memorian, mugikortasuna aztertzen den atalean, GI-2132, zirkuitoko karretera deritzonaren zirkulazioa arindu eta kale soil bihurtzeko asmoa azaltzen da, dagoen hesi funtzionala kendu eta auzo mugakideen ingurumena birgaitzeko. Boulevartizazio prozesu bat, alegia. Horretarako, araudian, Hernaniren mendebaldeko saiesbidea egitea proposatzen da: 1.200 m linealeko tartea berria -700 m linealeko tunela Sta. Barbara mediaren azpian dituen. 2016an behin betiko onartutako Donostialdeko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatikako Planak proposamen hori aurreikusten badu ere, eremuan eskumenak dituzten administrazio desberdinek ez dute hura garatzeko aurrera pausorik egin.

Bestalde, Hernaniko Udalak Txantxillako garapenarekin batera errotonda berria egin zen eta honekin batera oinezkoentzako eta bizikletentzako bide berri eta zabalak. Egun, SB.03 eremua garatzeko lanetan ari dela, egindakoaren jarraipena garatzeko lanean ari da Udala errepidearen bi aldeetan autobus geltokiraino. Aurrerago, SB.04 eremua garatzean errotonda berri bat egitea aurreikusita dago eta beste tartea luze batean errepidearen mendebaldeko aldea urbanizatzea.

Edozein kasutan, errepide horren izaera aldatu eta araudian aurreikusitako "kale soil" bihurtu ahal izateko, bertako trafikoentzako alternatiba bat bilatu behar da. Eskumenak dituzten administrazioen artean, Udal arauetan zein Zatikako planean aurreikusitako saiesbidea edo eta bestelako alternatiba bat landu beharko litzateke. Hura garatu tartean, zirkuitoko errepidea "boulevartizatzeko" proiekturik ez du bilatutako helburua lortuko.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Zirkuitoko errepidearen izaera aldatzeko alternatiben azterketa eta proiektu desberdinen idazketa: 125.000 €-tik gora.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Bi urte

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Hirigintza, Udaltzaingoa, Zerbitzuak, Kontratazioa, etab.

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesuan ezarritako aurrekontu muga gainditzen duela: Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

5. Hirigintza

✓ **PROPOSAMENA**

32. Proposamena

32-Oinezkoari lehentasuna ematea. Oinezkoen gunek gehiago jarri eta dauden zebrabideak hobeto seinaleztatu.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Azken aldian Hernaniko Udalak oinezkoen gunek handitzeko, hobetzeko eta hauei lehentasuna emateko hainbat ekimen burutu ditu (Karabeleko urbanizazioa edo eta Etxeberriko urbanizazioa estaerako) eta beste batzuk abian ditu, Urbieta kalearen peatonalizazioa adibidez.

Bestalde, Hernaniko Udalak tramitatzen ari den irisgarritasun planean Udalerriko zebrabide guztiak identifikatu dira eta horiek irisgarritasun araudiari duten egokitze maila aztertuta dago ere.

Azkenik, aipatu beharra dago Herri Lanen sailetik kale mantenurako (zebrabideak barne) partida orokor bat dagoela eta egokitzapenak sail eta partida horietatik egiten direla.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Herri lanak

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

21. HIRIGINTZA _____

22. _____

✓ **PROPOSAMENA 36**

Ascensor o escaleras eléctricas Bº Puerto y Bº Elizatxo
Mucha gente mayor en el Bº Puerto Y Bº Elizatxo con dificultades para acceder al centro del pueblo

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Gaur egun Portu eta Elizatxo auzoetatik kaskora oinez igotzeko gehien erabiltzen den bidea Elizatxo ikastola paretik hasi eta Udalaren atzeko alderaino doazen eskailera dira. Guztira 98 eskailera maila: lehenik, 67,10 metroko tarte bat, Elizatxo ikastolan hasi eta Txalaparta elkarteko atariraino, eta hortik abiatuta, beste 5,40 metro, Lizeaga kale hasierako espaloiraino. Guztira 16,00 metroko altuera gainditzen dela.

Eskailera horiek kokatuak dauden lekuaren ezaugarriak eta orografia kontuan hartuta, eskatzen den esku-hartzea izango litzateke, batetik, eskailera mekaniko bat jartzea Elizatxo ikastolatik hasi eta Txalaparta elkartearen atariraino, eta, bestetik, igogailu bat jartzea Txalaparta elkartearen ataritik Lizeaga kalearen hasierako espaloiraino.

Honelako instalazioen arazoa da koste ekonomiko handia daukatela.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

125.000,00 €-tik gora

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

6. INGURUMEN UNITATEAK
7. UDALTZAINGOA

✓ **PROPOSAMENA**

38. 30 KM/H-KO ABIADURA EZ errespetatzeko bide ematen duten errepide ugari (Florida kalea, Orbegozo zubia (50 km/h), Txirrita kalea, Elkano kale osoa, Urbieta kalea, Lizeaga kalea, Aristizabal aldapa...) doitu herri barruan. Herri atseginago batean bizitzeko, kutsadura mota ezberdinak (zarata eta poluzioa) murrizteko eta aipatzen dena ez gertatzeko, abiadura arauak errespetatzeko herritar interesatuekin adostutako proiektua idaztea proposatzen da.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Abiadurak errespetatzeko baliabideak jartzea Ingurumen sailari ez badagozkio ere Ingurumen Sailak bai, proposatu dezake, trafikoaren ondorioz sortzen den zarata gutxitzeko zein bitarteko izan daitezkeen egokiak.

Horien artean, nire iritziz efektiboena abiadura murriztuen kartelak jartzea da eta hori betetzen dela ziurtatzeko baliabideak jartzea (edo behintzat, aldian behin kontrol kanpainak egitea).

Badaude iritzi ezberdin asfaltoen materialen inguruan eta horrela badaude diotenak asfaltoaren konposizioak eragina duela xurgatzen duen soinu mailan eta ondorioz osagarri batzuekin egindakoak soinu xurgatze ahalmen handiagoa dutela.

Hori ez dago oraindik demostratua. Badakigu inguruko herriren batean frogak egiten ari direla baina oraindik ez dago emaitza garbirik.

Hori esan eta gero, adieraz, Hirigintza eta Ingurumeneko Saitetik sustatzen diren obra berrietan, zoinu eta zarata kontuan hartzen direla eta ahalegintzen gabela soinua murriztuko duten irizpideak txertatzen.

Mugikortasun planari ere buelta batzuk ematen ari gara eta horren barruan ere lantzen zarata murrizteko aukerak.

Orokorrean azken aldian Hirigintzatik ateratzen diren proiektuetan, tokian tokiko neurriak proposatu eta hartzen dira, trafiko-zarataren arazoa gero eta txikiagoa izan dadin.

Udaltzaingoak bat egiten du ingurumen sailak egindako balorazioarekin.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Ez dut aurreikuspen ekonomiko konkreturik aurreikusten.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Udaltzaingoa, araudia bete arazteko eta abiadura kontrol kanpainak egiteko

Hirigintza eta Ingurumena, departamentuan sustatzen diren proiektuetan, gaia txertatzeko eta murrizteko irizpideak txertatzeko

Herrilanak, asfaltatze lanetan, trafikoaren zarata murriztea kontuan izateko

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

23. UDALTZAINGOA

✓ **39 PROPOSAMENA**

Bide segurtasun sistemaren instalakuntza txirrinduentzat Ave Maria parkeko sarreran, Latsunbe 30eko parean.

Bidegurutze arriskua da parkearen irteeran ez baitago ikusgarritasunik kalea zeharkatzean Latsunbe kaleko ibilgailuen zirkulazioagatik. Lehenik eta behin oker seinaleztatutako bide gorria topatzen dugu, bidea eman ikurra lurrian margotuta dagoelako baina txirrindulariek errespetatzen ez dutena. Seinaleztapen hobea eta ispiluren bat jartzea beharrezkoa litzateke.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Ave Maria parketik Latsunbe kalera bideratzeko dagoen irteerak gelditzea agintzen du bidea zeharkatzeko edo txirrinduen bide gorrira sartu ahal izateko.

Parketik irteteko ispilu bat jarrita dago aurreko farolan, Latsunbe kaletik datozen ibilgailuen presentzia aurrez ikusteko. Ibilgailuak ezker aldetik baino ez datoz, norabide bakarrek kalea baita.

Parkeko irteeran, bi alboetan, bi ispilu jarrita daude, txirrinduen bide gorrira sartu aurretik, inor datorren ikusteko. Bi ispilu hauek irten aurretik bide gorriko berri ematen digute.

Seinaleztapen guzti hauekin Ave Maria parkeko irteera segurtasunez egiteko bermatuta dago.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

24. UDALTZAINGOA

✓ **39 PROPOSAMENA**

Instalación de sistema de seguridad vial en el acceso al parque Ave María a la altura de Latxunbe nº 30 para bicicletas.

Es un cruce peligroso ya que no hay visibilidad en la salida del parque cruzando la carretera de circulación de coches de Latxunbe. En primer lugar te encuentras con un bidegorri muy mal señalizado, en el que hay ceda el paso dibujado en el suelo, pero que ningún ciclista respeta. Sería necesaria la instalación de algún espejo y de mejor señalización para bicicletas

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

La salida del parque de Ave María hacia la calle Latxunbe es una salida perpendicular que exige pararse para cruzar la calle o incorporarse al bidegorri de bicicletas.

Para la salida de vehículos hay instalado un espejo en la farola de enfrente para que los vehículos pueden ver quién se aproxima o circula por la calle Latxunbe, calle de dirección única.

En la misma intersección de la salida del parque existen dos espejos a ambos lados de la salida por las cuales podemos observar claramente las dos direcciones del bidegorri.

Entendemos que con todas estas señalizaciones la salida queda garantizada ya que además el bidegorri tiene un ceda el paso para los que puedan salir del parque de Ave María.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

25. UDALZAINGOA

✓ 41 PROPOSAMENA

Oinezkoen presentzia handitzeko kohesistentzia (oinezkoa eta motor ibilgailua) gune berriak sortzea proposatzen da; Charter-Biteri, Anbulatorioa-Atsegindegi-Urbieta bidegurutzea; Txirrita-Orkolaga bidegurutzea, Lidl-Dia pasabidea, Mañe i Flaquer-Emakumearen Etxea pasabidea; Iturregi-Aristizabal bidegurutzea, Florida-Etxeberri bidegurutzea, Haur Eskola-Pista bidegurutzea, Antziola-Oriamendi bidegurutzea...

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Gune berririk ez dugu aurre ikusten une honetan , hirigintza plan batean oinarrituta ez bada.

Kohesistentzia guneak nonahi sortzea ez da irizpide orokorra. Egoera eta kokagune konkretuen arabera zehazten eta eraikitzen dira.

Hirigintza planetan zehazten direnak hartzen ditugu oinarritzat. Honek adibidea, Portu eta Elizatxoko auzoen sarreran egindako abuztuan.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

26. UDALTZAINGOA

✓ **43 PROPOSAMENA**

Aparkalekua hobetzea herrian merkataritza sustatzeko.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

2018an egin genuen azken aldaketan, kaskoaren bueltan, zonalde berriak arautu ziren, merkataritza sustatzeko Berriak elkarteak egindako proposamenari erantzunez. Izpizua eta Atzieta kaleetan aurretik ezarritako aparkalekuen erabileraren udal ordenantzari, berrikuntza berria erantsi zaio Elkano, Nafar eta Txirrita kalean aparkalekuak erabiltzeko aukera gehituz. Aipatutako kaleetako zonalde urdinetan, ordaindu gabeko gehieneko ordu eta erdiko denbora epea ezarrita dago, kaskotik urrun daudenek erabil ditzaten.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo geratzen da.



BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

27. Hirigintza

PROPOSAMENA

45. Proposamena

Latsunbe (edo Hernaniko beste bat) frontoia estali, ezkerreko pareta atzeraino luzatu eta altxatu futbol zelaira doan pasabidea kenduz eta lurra pulitu. Bertan, komertzio txikia publizitatu daiteke.

✓ BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua martxan jarri zenetik, urtero hainbat erabileratarako espazio publikoak estaltzeko eskaerak egin izan dira, bai haur parkeak eta baita hainbat plaza, frontoi, eskola patioak edo eta bestelako espazio publikoak.

2014. urtean egindako prozesuaren ondorioz, bi espazio publiko estaltzea erabaki zen. Batetik, Urumea eskolako patioa, eta bestetik Atletismo pista ondoko haur parkea. Lehenengo estalkia 2016ko udaran bukatu zen eta bigarrena 2019. urtean zehar bukatuko da.

Urumea eskolan 640 m² inguru estali dira eta lanen kostua 312.930 €-takoa izan da, proiektua eta lanak barne.

Atletismo pista ondoko parkearen estalkiko proiektuan berriz, 280 bat metro karratu estaltzeko aurrekontua 220.000 €-koa da, proiektua eta lanen zuzendaritza kanpo.

Proposatutakoa kirol erabileretarako ekipamendu komunitarioko partzela batean kokatzen da. Hortaz, kirol sailetik partzela horretan frontoi estaltzeko egokitasunaren inguruan adierazi dezaketinari kalterik egin gabe, frontoiaren azalera 200 bat metro karratukoa izanda, proposatutakoaren aurrekontua aise gainditzen du prozesuan jarritako aurrekontuaren muga eta, hortaz, prozesutik kanpo legoke.

✓ AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):

Estalkia bakarrik: 175.000 € (proiektua eta lanen zuzendaritza kanpo)

✓ PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:

✓ PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:

✓ AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?

✓ PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)

Prozesuan ezarritako aurrekontu muga gainditzen duela: Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

28. _____ Enplegua _____
29. _____ Merkataritza _____

✓ **PROPOSAMENA**

47.- Establecer el espectro empresarial y sus puestos de trabajo no identificados

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

- Hernaniko enpresen-datu basea: jada Hernaniko enpresa guztiak GISLAN base-datuetan ditugu jasoak
- Hernaniko enprekin harremanak: jada ari da lanean enprekin mantentzen dituen harremanetarako teknikari bat
- Enplegu soziala: honetarako beste teknikari bat ari da lanean
- Lan eskaintzak eta lan eskakizunak LANBIDEn bidez kudeatzen dira. Alde batetik Hernanin martxan dago lan-orientazio zerbitzua, eskatzaile guztiei dagokien enplegua lortzeko bide propioa izateko. Bestetik, enpresek behar dituzten langileak lortzeko LANBIDEn bidez badute sistema konkretu bat (lan eskaintzak bidez)

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

32. KULTURA

✓ **PROPOSAMENA**

52. Proposamena

Ampliar a los barrios cursos y actividades que se hacen en Biteri.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Udalak lehengo urtean bi auzoetan, eta aurten, auzo guztietara zabaldu du bi kultur jarduera antolatzeke proposamena: buruhandien tailerra, eta ipuin kontaketa saio bat. Haien balorazioa positiboa bada, horiek mantentzeko konpromisoa hartzen du.

Auzo guztietan antolatzen dira haur tailerrak ikasturtean zehar, auzoko haurrentzat doan dira.

Horretaz gain, auzo elkarteek kultur jarduerak antolatzeke dirulaguntza bat dute, eta Udalak dirulaguntza horren bidez bultzatu nahi du kultur jarduerak antolatzea auzoetan.

Bukatzeke, auzo elkarten lokalen errealitatea auzoz auzo ezberdina da, baina kasu gehienetan ikuskizunak programatzeko espazioak ez daude egokituta, edo ez dira egokiak.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

PROZESUTIK KANPO

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

33. KULTURA

✓ **PROPOSAMENA**

53. Proposamena

Kultur etxe berria egiteko eta honen eskaintza zabaltzeko proiektua garatzea.

Biteri kultur etxea txikiegia da hernaniarrontzat eta bertako eskaintza ere anitzagoa izan daiteke.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Momentu honetan kultur ekipamendu hauetan daude interbentzioak aurreikusita:

1. Atsegindegi: Espazio hau besteak beste, kalean egiten diren kultur jarduerak zein bestelako kokaleku da euria egiten duenean. Lanak 2019ko urrian hasiko dira eta bertan aurreikusia dagoen inbertsioa 540.000 euro ingurukoa izango da.
2. Sandiusterrin Musika Eskolarentzako bi gela berri eta Ttarla dantza taldearentzat entsaiatzeko gelak egitea aurreikusten da. Proiektua egiteko lehiaketa martxan dago.
3. Milagrosa: kultur ekipamendu honetan herrian dauden hainbat musika taldek entsaiatzen dute: musika bandak, txistulariek, abesbatzak... berritze eta saneamendu premian dago, orain itoginak eta hezetasuna dago, eta. Horiek konpondu eta fatxada eta gainerakoari txukunketa bat egingo zaio.
4. Ave Maria: Kultur sormenari eskainiko zaio eraikina, proiektuaren nondik norakoak definitzeko parte-hartze prozesu bat egin da herriko eragileekin. Prozesu horretatik jasotakoak proiektu arkitektonikoan txertatuko dira.

Kultur ekipamenduen inguruko lanketa da momentu honetan tokatzen dena. Beraz, oraingoz, ezin zaio kultur etxe berri baten proiektuari heldu.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

PROZESUTIK KANPO

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

34. KULTURA

✓ **PROPOSAMENA**

54. Proposamena

Proyecto / estudio nuevo Areto y Musika Eskola

Falta un auditorio en condiciones para un municipio de 20.000 habitantes y mejora de la Musika Eskola actual (600 alumnos)

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Momentu honetan kultur ekipamendu hauetan daude interbentzioak aurreikusita:

5. Atsegindegi: Espazio hau besteak beste, kalean egiten diren kultur jarduerak zein bestelako kokaleku da euria egiten duenean. Lanak 2019ko urrian hasiko dira eta bertan aurreikusia dagoen inbertsioa 540.000 euro ingurukoa izango da.
6. Sandiusterrin Musika Eskolarentzako bi gela berri eta Ttarla dantza taldearentzat entsaiatzeko gelak egitea aurreikusten da. Proiektua egiteko lehiaketa martxan dago.
7. Milagrosa: kultur ekipamendu honetan herrian dauden hainbat musika taldek entsaiatzen dute: musika bandak, txistulariek, abesbatzak... berritze eta saneamendu premian dago, orain itoginak eta hezetasuna dago, eta. Horiek konpondu eta fatxada eta gainerakoari txukunketa bat egingo zaio.
8. Ave Maria: Kultur sormenari eskainiko zaio eraikina, proiektuaren nondik norakoak definitzeko parte-hartze prozesu bat egin da herriko eragileekin. Prozesu horretatik jasotakoak proiektu arkitektonikoan txertatuko dira.

Kultur ekipamenduen inguruko lanketa da momentu honetan tokatzen dena. Beraz, oraingoz, ezin zaio kultur etxe/auditorio berri baten proiektuari heldu.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

PROZESUTIK KANPO

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

35. UDALTZAINGOA

✓ **55 PROPOSAMENA**

Txakur jabeei araudia gogorarazteko kanpaina egitea eta berdeguneetan kartelak jartzea: txakurrak lotuta egon behar dutela, kakak jaso egin behar dituztela, gaez balkoietan ezin dutela zaunka ari luzaroan, etab.

Berdeguneak ez dira zakurrenak eta hauen jabeei elkarbizitzarako araudia gogoraraztea ez dago soberan, geroz eta zakur gehiago baitaude eta arazoa handitzen ari baita.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZIOA:**

Herriko parke eta berdeguneetan kartelak jarrita daude. Baita ere txakurrak libre ibiltzeko finkatuta dauden ordutegia zehazten duten kartelak. Hauek zenbaitetan kaltetuak suertatzen dira eta berriak jartzen dituzte.

Hernaniko udalak txakur arriskutsuen errolda badu, hauek izateko eta hauekin ibiltzeko baimenak udalaren eskumena delako. Gainontzeko txakurren erroldarik ez du.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

Erroldatuta dauden txakurren titularrei aipatzen ohartarazpenak bidaliko dizkiegu, udal arauak gogoraraziz eta hauen urraketak dituen ondorioetaz informatuz. Udaltzainen kontrolak jarraitzen du eta arau hauste hauek bideratzen dira, dagokion isun administratiboen bidez.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

2019ko abendua

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

36. INGURUMEN UNITATEAK

37. _____

✓ **PROPOSAMENA**

56 Añadir contenedores de recogida selectiva en Sorgintxulo. Aceite, pilas, bombillas. Además papeleras de plástico, papel, orgánico, residuos (en campo de futbol, en las dos paradas de bus de Sorgintxulo)

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Hernaniko Udalak 12 mini puntu edo garbigune-txiki eta beste 12 olio erabilia jasotzeko makinak ditu udalerrian zehar jarrita.

Makina horien ratioa 1.500 biztanleko bat jartzea da ohikoa. Hernaniko Udalak ratio horretatik gora ditu jarriak; izan ere, gaur gaurkoz 20.354 biztanle ditu.

Makina horien kokapena aukeratzeko udalerrira osoa izan genuen kontuan eta herritar guztiei horietan jasotzen diren hondakinen kudeaketa errazteko helburuarekin aukeratu ziren kokapenak (bidean, autoz edo oinez erraz iristeko moduan, periferiako auzoak barne).

Horrela Ertzain-etxe inguruko errotondan bi makina jarri genituen, alde batean olioarena eta bestean, mini puntua, beheko argazkian ikus daitekeen moduan:



✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

0 €

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Ez dago ezer garatzeko

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Kanpo

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

38. ZERBITZU PUBLIKOAK _____

39. _____

✓ **PROPOSAMENA**

58. Proposamena

Carro para los barrenderos como tienen los de Errenteria, que tengan cubiletes para separar los residuos y si son eléctricos como los de Lasarte, mejor.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Egungo kale garbiketa zerbitzuak ahal dituen hondakinak bereizten ditu haien bilketan. Gero ibilgailu batek jasotzen ditu pilatutako poltsak. Hori dela eta, ez da beharrezkoa ikusten orga elektrikoak erabiltzea, erabiltzen direnak egokiak direla uste delako, eta jasangarriagoak.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

0€

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo.

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

40. INGURUMEN UNITATEAK

41. _____

✓ **PROPOSAMENA**

60. Zaborrontzi gehiago jartzea

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

Hernaniko Udalak hasiera batean 100 paperontzi gune (gune bakoitza, kolore ezberdinetako launa paperontziekin) jarri zituela 2010en. Handik aurrerako urteetan gune berriak jartzen joan da. Harrezkero egin diren auzo berrietan ere paperontziak jarri izan dira.

Badaude auzoak paperontzi gune gutxiago izan arren garbiak mantentzen direnak. Beste batzuk ordea, nahiz eta paper ontzi gehiago jarri diren, zikinak izaten jarraitzen dute.

Paperontzia dagoen gune batetik bestera ez dago tarte handirik. Hondakintxoren bat baldin badugu (fruta azalen bat, karamelo bildukiren bat edo antzekorik) ez dugu tarte handia egin behar hura eskuan hartuta, paperontzia dagoen lekuraino.

Iaz, prozesu parte hartzailean hala eskatuta 14 gune berrietan jarri ziren paperontziak. Zertarako balio izan dituzte? Ba, pasoko guneetan daudenak bereziki, jendeak etxetik hondakinak atera eta haietan uzteko. Bi adibide garbi: Etxeberriruntz zoazela, Laiztiagako etxadiak bukatzen diren gunearen alboan dagoen zebra bidearen ondoan jarritakoak eta Lizeaga kalearen bukaera aldera jarritakoak. Horiek biak beti daude etxeetatik ateratako poltsaz beteak.

NIk egiten dudan galdera da: zertarako nahi du jendeak paperontzi gehiago? Zaborontziak bezala erabiltzeko?



Auzo berrietan obra garaian jartzen dira paperontzi berriak.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

0 €

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Prozesutik kanpo

